

KULTURA-ENPRESENTZAKO LAGUNTZA PUBLIKOA

KASUEN ANALISIA ETA JARDUTEKO PROPOSAMENAK

2014ko MARTXOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

KULTURA-ENPRESENTZAKO LAGUNTZA PUBLIKOA

KASUEN ANALISIA ETA JARDUTEKO PROPOSAMENAK

2014ko MARTXOA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2014

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:
1.a, 2014ko maiatza

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet:
www.euskadi.net

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz



Aurkibidea

Sarrera	5
<hr/>	
1. Kultura-arloko enpresei laguntzea	6
1.1. Gaur egungo testuingurua	6
1.2. Laguntzea, erantzun gisa	7
<hr/>	
2. Kultura- eta sormen-enpresei laguntzeko esparrua	9
<hr/>	
3. Jardunbide egokiak	13
3.1. Kasu-analisia	13
3.2. Aztertutako kasuei buruzko gogoetak	33
<hr/>	
4. EA Eren kasua: Enpresa-laguntzeko esparrua kulturaren	34
4.1. Gomendioak	34



Sarrera

Kultura-sektore askok dituzten zailtasunak direla eta, erakunde publiko ugari laguntzeko modu berriak birplanteatzen, eta eraginkorragoak izango diren eta gero eta konplexu eta globalagoa den testuinguruak eragindako beharrei gehiago erantzuten dieten tresna berriak garatzen ari da.

Ildo horretan, Kulturaren Euskal Behatokiak txosten honetan nazioarteko azterketa egiten du, kultura- eta sormen-sektoreak garatzen laguntzeko erabiltzen diren bide berriak identifikatzeko. Gaur egungo testuinguruan, ekarpen ekonomikoez gaindiko laguntza-politikak eta neurriak beharrezkoak dira. Horren harira, Herri Administrazioek kultura- eta sormen-enpresei eskaintzen dieten laguntza gero eta zabalagoa da. Hain zuzen ere, sektore publikotik laguntza-politikak gauzatzen ari dira, finantzaketa- eta aholkularitza-tresnak barne hartzen dituztenak. Horien bidez, baldintza hobezinak sortu nahi dira, kulturaren eta sormenaren sektoreak garatzeko, bi arrazoi direla eta: enplegua eta aberastasuna sor dezaketelako; eta gizartearen garapen sozial, ekonomiko eta kulturalerako garrantzitsuak direlako.

Txosten honen helburua da nazioarteko jardunbide onak eta arrakasta-kasuak identifikatzea kulturari eta sormenari loturiko enpresei zuzendutako laguntza-programa publikoen artean. Analisi honi esker gaur egun enpresa-laguntzan jasotzen diren arlo nagusiak nahiz jarduera-ildo eta erabilitako tresnak identifikatu ahal izango dira. Hori guztia egiten da Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eta beste zenbait sail eta erakundek garatuko dituzten politika proposamenak definitzeko, EAEko kultura-sektorearen garapena eta osasun ona sustatzeko asmoz.



1.1. Gaur egungo testuingurua

Kulturaren sektoreari laguntzeko politikak Espainian, historikoki, diru-laguntzak esleitzeari lotutakoak izan dira, kultura ondasun publiko gisa babesteko beharrari erantzun nahian. Baina, kulturaren industriak hazi diren heinean eta sormen-industriei buruzko diskurtsoek indarra hartu duten heinean, errentagarritasunaren, nazioartekotzearen edo dibertsifikatzearen kontzeptuak, besteak beste, nabarmenagoak dira kultura-sektoreetan. Horri bi gai gehiago batu behar zaizkio: batetik, krisi ekonomikoa dela eta, kulturara bideratutako aurrekontu publikoak murriztu egin dira; eta, bestetik, sormena eta kultura gizartearen garapenerako eta ongizaterako funtsezko elementu gisa balioetsi dira.

Izan ere, Kultura eta Sormen Industrien diskurtsoa enpresa-mundutik gertu geratzen da, eta kultura-sektore tradizionalak zabaltzen ditu. Herrialde askotako kultura-politikek, orobat Europar Batasunaren politikek, sektore klasikoak gainditu dituzte eta sormenari loturiko beste sektore batzuetara zabaltzen dira, hala nola diseinura, publizitatera, bideo-jokoetara...

Bestalde, errealitatea duela bi hamarkada baino askoz ere konplexuagoa da. Uneko ingurune ekonomikoan eta kulturalean aldaketa esponentziala gertatu da, hein handi batean, teknologia eta globalizazioa direla eta. Kulturaren arloan, kontsumo-ohiturak aldatu egin dira, neurri batean, sarean edukiak ia mugarik gabe eskuratu daitezkeelako, pirateria, gailu mugikor eta abar luze bat direla eta. Horiek agerian uzten dute kulturaren sektoreak erronka berriei aurre egin behar diela.

Hala bada, kultura eta sormenaren sektoreen beharrak aldatzen diren heinean, Herri Administrazioen erantzunak eta laguntzak ere aldatu beharra dute.



1.2. Laguntzea, erantzun gisa

Kultura-arloko laguntza publikoaren helburua aholkularitza eta laguntza eskaintzea da, kulturaren eta sormenaren arloko eragileek aurrean dituzten erronka eta oztopoei eraginkorrago eta lehiakorrago erantzun ahal izateko, albait emaitza onenak lortuko badira. Dena den, laguntzearekin batera ardura ere badatorkio Administrazioari; izan ere, laguntza eskaintzen dien kultura eta sormen alorreko enpresak garatzeko prozesuan etengabe parte hartzea dakarkio.

Enpresa-laguntzak enpresei zenbait helburu lortzen laguntzera eta aholkularitza ematera bideratuta dauden ekintza eta programa guztiak dira: enpresa-ideia garatzea, merkatuak zabaltzea, nazioartekotzea, IKTak txertatzea, dibertsifikatzea eta abar. Oro har, laguntzea enpresa txiki eta ertainei zuzenduta dago, horiek baitute zailtasun handiena arlo desberdinetan garatzeko beharrezkoa den esperientzia lortzeko orduan. Dena den, , kulturaren arloan ondo ezarritako enpresa handiek ere gero eta gehiagotan eskatzen dizkiote irtenbideak eta laguntzak sektore publikoari.

Baina laguntzearen barruan finantzaketa ere sartzen da, kulturaren eta sormenaren arloko industriaren arazo nagusietako bat finantzaketa eskuratzea baita oraindik ere. Europako instituzio guztiak daude finantzaketa lortzeko zailtasunekin kezkatuta, berariaz gai hori tratatzen duten azterketa eta txostenek agerian utzi dutenez¹. Europako Batzordeak, Europako Parlamentura, Kontseilura, Batzorde Ekonomiko eta Sozialera eta Eskualdeen Batzordera bidaltzeko egin zuen [Promoting cultural and creative sectors for growth and jobs in the EU](#), txostenean, honako hau baieztatu zen: «Kultura eta sormen arloko enpresak txikiak dira, eskaintzen dituzten produktuen gaineko eskaeraren inguruan ez dago ziurtasunik, negozio-plan konplexuak dituzte eta ez dute aktibo hautemangarririk; arrazoi horiek guztiak oztopoak dira kanpo-finantzaketa lortzeko orduan. Kapital-finantzaketa, Angel Investment delakoa, arrisku-kapitala eta bermeak ordeztuko finantzaketak izan daitezkeen arren, oraindik ez dira askorik erabiltzen. (...) Hori dela eta, finantza-erakundeek ezagutza handiagoa behar du sektore horien potentzial ekonomikoaren inguruan, eta hautemangarriak ez diren aktiboak dituzten enpresak ebaluatzeko gaitasuna garatu behar dute».

¹ The Angel Capital Group. *Mini-study on the Access to Finance activities of the European Creative Industry Alliance*. Europako Batzordearen Enpresa eta Industriako ZOarentzako Txostena.



Hala bada, finantzaketa eskuratzea identifikatutako arazo eta erronka da, eta Herri Administrazioek erantzun egin behar diote, zuzeneko finantzaketaren bidez ez ezik, bitartekari-lana ere eginez. Ildo horretan, kultura eta sormen arloko sektoreei laguntzeko Europa Sortzailea 2014-2020 programa europar berriak, diru-laguntzez gainera, finantza-bermeko tresna berri bat du, eragile txikiei kredituak eskuratzeko eta finantza-erakundeek kultura arloko enpresekiko duten ezagutza maila hobetzeko.

Planteamendu horretatik, laguntza ezinbestekoa da finantzaketa eskuratzeko orduan. Zuzeneko laguntza ekonomiko gisa ez ezik, batez ere kultura- eta sormen-proiektu arrakastatsuak garatzeko erabaki egokienak hartzeko beharrezko elementu gisa ere.



Kultura arloan, enpresei laguntzeak helburu orokor bat du: kultura eta sormen arloko industrien garapena eta lehiakortasuna sustatzea. Baina politikak eta tresnak aldatu egiten dira eta horietako bakoitzak helburu espezifiko batzuei erantzuten die.

Jarraian enpresa-laguntza zer arlotan gara daitekeen islatzen duen mapa aurkezten da. Hiru esparru nagusi identifika daitezke:

- **Aholkularitza eta prestakuntza (A)**

Instituzio eta erakunde publikoek edo publiko-pribatuek enpresa-laguntzaren esparruan eskaintzen duten aholkularitza eta prestakuntza, funtsean, finantzei, merkataritzari eta zergei loturiko alderdietan zentratzen dira. Ildo horretan, ohikoa da aholkularitza edo prestakuntza saioak egitea (lantegiak, lantaldeak, hitzaldiak, mintegiak eta abar), honako gai hauei buruz:

- Negozio-planak prestatzea
- Finantzaketa-formulak
- Nazioartekotzea eta merkatu berriak irekitzea

- **Inguruneak sortzea (E)**

Esparru hori gero eta zabalduago dago eta sareak nahiz sinergiak sortzearen garrantzia azpimarratzen du, kulturaren eta sormenaren arloko enpresak garatzeko orduan. Hartara, aholkularitzarekin bat, laguntza-instituzio eta -erakunde batzuk harremanetarako espazioak sortzen dituzte, oro har, bi motatako tresnen bidez:

- Kulturaren eta sormenaren arloko enpresen mintegi eta haztegiak sortuz. Laguntza eskaintzea da helburua, espazio eta azpiegitura partekatuar sortuz, sormenaren eta kultura sektoreen beharretara egokitasun.
- *Networking-erako ekitaldi eta espazioei bide emanez.*



- **Finantzaketa (F)**

Finantzaketaren arloa da zabalena eta, horren baitan, badira zenbait helbururi erantzuten dioten neurri batzuk:

- **Laguntza publikodun neurriak**

Sormen- eta kultura-arloko enpresentzako zuzeneko laguntza administratiboak honela bidera daitezke:

- Diru-laguntzak: Administrazioak kultura- eta sormen-eragileei ematen dien itzuli beharrik gabeko diru-kopurua, garatzen duten jarduerak interes publikoa duela uste baita
- Bermeak: finantzaketa pribatua eskuratzea errazten dute, banku- edo finantza-erakundeak eta Administrazioak proiektu sortzaile baten finantzaketa-arriskua banatzen dutelako. Hainbat berme-mota dago.
- Zerga-pizgarriak: zerga batzuk ordaintzeko orduan murrizketak edo salbuespenak eskaintzen dituzten pizgarriak dira, kulturaren edo sormenaren arloan kapital-finantzaketa, babesak edo dohaintzak eskaintzen dituzten eragile pribatuei zuzendua.

- **Zorra finantzatzea**

Enpresek negozio bat irekitzeko edo lehendik dagoen negozio batean jarduteko behar duten kapitala lor dezaten laguntzeko modu bat da. Zorra finantzatzen da pertsona, enpresa, banku edo beste erakunde batek kapitala ematen duenean negozio baterako, eta enpresak mailegatutako kapitala gehi adosten den interes-tasa, ordaintzeko betebeharra duenean. Finantzaketa hori maileguen edo mikrokredituen bidez egin daiteke.

- **Kapitala finantzatzea**


Finantzaketa-mota horrek ezohikoa izaten jarraitzen du kultura eta sormenaren arloko enpresen artean. Dena den, zenbait herrialdeetan, hala nola iparraldeko herrialdeetan², ildo honen aldeko apustua egiten ari dira, ekonomia sortzailea garatzen laguntzeko. Finantzaketa-mota honetarako bideak hauek dira:

² Txosten honetako Jardunbide Egokiak atalean, kapitala finantzatzeko nazioarteko zenbait ekimen deskribatzen dira.



- Arrisku-kapitala finantzatzea: Beren baliabideak oro har berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak aldi baterako finantzatzen inbertitzen dituzten sozietate anonimoak dira. Arrisku-kapitalak ez du berme edo abal pertsonalik eskatzen inbertsioa jasotzen duten enpresen kapitalaren zati diren pertsonen aldetik, baizik eta enpresan bazkide bat gehiago izatea dakar.
 - *Business angels*: negozio berrietan lagundu eta parte hartu nahi duten inbertitzaile pribatuak dira.
- o **Bestelakoak**


Deskribatutako finantzaketa-moduez gainera, kultura eta sormenaren arloko enpresek dohaintza edo babesak ere jaso ditzakete beren proiektuak gauzatzeko.



ENPRESA LAGUNTZA MAPA

AHOLKULARITZA- TREBAKUNTZA

FINANTZARIOA · KOMERTZIALA · FISKALA




INGURUNEAK SORTZEN


Mintegiak/
haztegiak

Ekitaldiak /
networking

FINANTZAKETA



Iturria: *Promoting Investment in the Cultural and Creative Sector: Financing Needs, Trends and Opportunities*. 2009.03.2010. KEA European Affairs.



3.1. Kasuen analisisia

Kultura-arloan enpresentzako laguntze-jarduerak eta -programak (aurreko atalean deskribatu ditugun tresnekin) gauzaten dituzten organismo eta erakunde publiko eta publiko-pribatuen zenbait kasu aurkeztuko ditugu jarraian.

Kasu hauek aztertu ditugu:

- *Cultural Enterprise Office* - Eskozia (Erresuma Batua)
- *Fonds d'investissement de la culture et des communications* - Québec (Kanada)
- *Centre for Culture and Experience Economy* (Danimarka)
- *Institut de financement du cinéma et les industries culturelles* - Frantzia
- *Hamburg Kreativ Gesellschaft* - Hanburgo (Alemania)
- *KreaNord* – Eskandinavia
- *Creative Industries Fund NL* - Herbehereak
- *Institut Català de les Empreses Culturals* - Katalunia



ERRESUMA BATUA - ESKOZIA

ERAKUNDEA: **Cultural Enterprise Office**

LAGUNTZE-MOTA: **A + E + F**

KULTURA ETA SORMENAREN ALORREKO SEKTORE ONURADUNAK

- Publizitatea
- Animazioa
- Arkitektura
- Oroimenezko-arteak
- Komunitate-arteak
- Ordenagailu-jolasak eta aplikazioak
- Artisautza eta esku-lana
- Dantza
- Diseinua
- Baliabide berriak eta baliabide digitalak
- Moda
- Zinema eta telebista
- Zuzeneko Arteak
- Musika
- Zirkua
- Argazkigintza
- Arte publikoa
- Irratia
- Softwarea
- Antzerkia
- Ikusizko arteak
- Literatura

Organismo honek kultura eta sormenaren arloko Eskoziako enpresentzako laguntza zerbitzua eta mikroenpresentzako eta profesionalentzako garapen-zerbitzuak zentralizatzen ditu. Irabazi asmorik gabeko erakunde bat da eta **Creative Scotland** erakundeak (sormenaren arloko arteak eta industriak garatzeko agentzia nazionala) eta Edinburgoko eta Glasgowko Udalek finantzatzen dute. Gainera, **Cultural Enterprise Office** bulegoak eskaintzen dituen zerbitzuak **Business Gateway** (Eskoziako Gobernuaren enpresentzako aholkularitzarako eta laguntzarako baliabide-zentroa) erakundearekin lankidetzan gauzatzen dira.

Sormenaren arloko enpresa eta profesionalentzako zerbitzuei dagokienez, erakundeak honako hauek eskaintzen ditu:

- **Aholkularitza:** aholkularitza espezializatu eta doakoa sormenaren arloko industriako enpresa eta profesionalentzako, banakako saioen bidez negozio-ideiak eztabaidatzeko eta garatzeko helburuarekin. Lehen kontsultaren ondoren, behar espezifikoaren arabera, proiektuak Sormenaren Industriako aholkulari-taldeari edo arlo espezifikoetako enpresa-aholkulari espezializatuaren taldeari (garapen digitala, finantzak, giza baliabideak, marketina eta abar) bidaltzen zaizkio.



- **Laguntza-materialen edizio eta argitalpena:** esparru guztietarako eskuliburu ugari dituzte (finantzaketa, marketina, banaketa, IKT eta abar) eta webgunean eskuragarri daude, sarbide irekian, orobat eragileen direktorioak eta laguntza-programak. Webgunean sormen-sektoreentzako interesgarria den informazioa ere jasotzen da, beste erakunde eta instituzioek antolatzen dituzten ekitaldi eta jardueri buruzkoa.
- **Networking lantegi eta ekitaldiak antolatzea:** sormen-arloko enpresei eta profesionali esperientziak trukatzeko, informazioa eta jakintza biltzeko eta abilezia profesionalak hobetzeko ahalbidetzeko jarduerak eta ekitaldi-programa du.

Hiru jarduerak horiez gainera, **Cultural Enterprise Office** bulegoak une honetan 3 programa espezifiko dit:

- **«Starter for 6» programa:** negozio gisa garatu nahi dituzten ideia sortzaileak dituzten sormen-industriako ekintzaileentzako inbertsio-programa da. Partaideen hautaketa, nagusiki, berrikuntza-maila baloratuz egiten da.

Laguntza hau eskaintzen die programak aukeratutako eskatzaileei:

- Enpresa-gaiei buruzko lau prestakuntza-saio, ideia bat negozio errentagarri bihurtzeko beharrezko enpresa-abileziak irakasteko. Saio horietan kostu-kalkulua, prezio-finkatzea, merkatuaren eta lehiakideen analisia, merkaturatzea eta abar jorratzen dira, baita negozio-plan irmoa prestatzeko beharrezkoa den oro ere.
 - Etengabeko tutoretza eta coachinga.
 - Sarea sortzeko eta ideiak beste ekintzaile batzuekin banatzeko aukera, lan-saioetan eta ekitaldietan.
 - Programaren bukaeran diru-laguntza funts bat eskuratzeko aukera, sormenaren arloko negozio-idea gauzatzeko.
 - Segimendua eta laguntza, behin programa amaitu ondoren.
- **Fashion Foundry:** moda-diseinatzaileei eta ehungintza-sektoreari laguntzera bideratutako programa, industria hobeto ezagutzeko, negozio-eredu bideragarriak garatzeko abileziak indartzeko eta luxuzko produktuen merkatuetan txertatzera bideratutako bideak zehazteko.

Fashion Foundry bi elementuz osatuta dago: negozio-mintegia (hautaketa-prozesu baten bidez iristen da horra) eta zenbait ekitaldi ireki, diseinatzaileen komunitatea



zabaltzeko. Mintegiak aukeratutako 10 diseinatzaileri beren negozioak garatzeko aukera eskaintzen die lantaldeetatik abiatuta, 18 hilabetez, enpresa edo diseinatzailer bakoitzaren behar zehatzei erantzuten dien plan espezifikoak zehaztu arte.

- **Flourish creative mentoring programme:** nazioartekotzeko estrategia garatzearen inguruko orientazioa eta prestakuntza eskaintzen du programa horrek. Programak 6 hilabetezko iraupena du eta 12 ekintzaile sortzailek hartzen dute parte. Programa horren helburua enpresa-sareak zabaltzea, lege-berezitasunetara egokitzea, dagokion negozioaren jabetza intelektualari loturiko alderdiak aztertzea, inbertsio-aukeren kontzientzia sortzea eta nazioarteko aukera nahiz merkatu berriak ezagutaraztea da.



QUEBEC - CANADÁ

ERAKUNDEA: **FICC** (Fonds d'investissement de la culture et des communications)

LAGUNTZE-MOTA: **F + A**

KULTURA ETA SORMENAREN ALORREKO SEKTORE ONURADUNAK

- Arte eszenikoak
- Edizioa
- Ikus-entzunezkoak
- Grabaketa
- Irratia
- Telebista
- Multimedia
- Digitala

FICC arrisku-kapitaleko sozietate bat da,³ 1997an sortua, kulturaren, komunikazioaren eta arlo digitalaren esparruko Québeceko enpresei finantza-elkarketak eskaintzen dizkiona. Hauek ditu funtseko bazkide nagusiak **Solidarity Fund QFL**, **Société de Développement des Entreprises Culturelles** (SODEC)) agentzia publikoa eta **Union des Artistes** (UDA). elkartea. **FICC** -en uneko kapitalizazioa 40,4 milioi dolar kanadarrekoa da (26,1 milioi euro).

Funts horrek Quebecen jarduten duten eta eduki kulturalak sortzen, ekoizten eta ezagutarazten dituzten enpresa kulturalari, edota eduki-enpresei laguntza tekniko edo teknologikoa eskaintzen dieten enpresei, laguntzen die.

FICC-ek eskaintzen dituen finantza-produktuen artean honako hauek nabarmentzen dira:

- **Bermedun mailegua:** 8 urterako mailegua. Enpresaren hazkundeari loturiko irabaziaren partaidetza-prima zenbait modutan lor daiteke:
 - Akzioak erosteko aukera.
 - Salmenta edo onuren gaineko royaltyak.
 - Enpresaren finantza-egiturara egokitutako bestelako bono-forma

³ Arrisku Kapitaleko Sozietate hau sozietate anonimoa da eta bere helburu sozial nagusia enpresa ez-finantzazkoen kapitalean aldi baterako partaidetza hartzea du. Enpresa horiek, partaidetza hartzen den unean, ez dute Balore Burtsetako lehen merkatuan kotizatu behar.



• **Kapitalaren partaidetza**

Dena den, **FICC**-ek eskaintzen dituen finantza-produktuen baldintzak negozio bakoitzaren beharretara egokitzen dira, erakundeak kultura eta sormenaren errealitatean dituen jakintza eta esperientziari esker.

Finantzaketa bila dabilen enpresa ororen kasuan, **FICC**-en inbertsio-irizpideak elementu hauetan oinarritzen dira: negozio-planaren helburuak eta ezaugarriak; produktua; kudeaketa-taldea; finantza-egoera; eta merkatua.

Enpresek honako prozesu hau egin behar dute **FICC**-en finantzaketa jasotzeko:

- Aurretiazko bilera: negozio-plana ebaluatzeko.
- Kontratu-proposamena: negozio-plana berrikusi ondoren, **FICC**-ek berretsi egiten du enpresan inbertitzeko interesa, eta inbertsio posible baterako finantza- eta negozio-parametro nagusiak proposatzen ditu. Inbertsio-parametro gakoaren inguruan akordiorik badago, **FICC**-ek enpresaren lorpenen, merkatu-datuen eta datu orokorren analisi zehatza egiten du eta, behin analisi hori eginda, inbertsio-proposamen bat aurkezten dio Administrazio Kontseiluari, horrek onar dezan.
- Inbertsio-eskaintza: inbertsioaren baldintzak zehazten dira.
- Lankidetzak: **FICC**-ek inbertsioa ematen du, eta enpresarekin lankidetzak hasten da. Taldearen esperientziak eta negozio-sareak laguntza martxan jartzen dute enpresan, kultura- edo sormen-proiektuaren garapenaren jarraipena egiten duten aholkulari taldearen bidez.



DINAMARKA

ERAKUNDEA: **Centre for Culture and Experience Economy**

LAGUNTZE-MOTA: **A + E**

KULTURA ETA SORMENAREN ALORREKO SEKTORE ONURADUNAK: Kultura- edo sormen-arloko oinarria duen enpresa edo proiektu guztiak.

Centre for Culture and Experience Economy (**CKO**) erakundea irabazi asmorik gabeko agentzia publikoa da, Danimarkako Ekonomia eta Enpresa Ministerioak eta Kultura Ministerioak 2008an sortua. Hauek dira erakundearen helburu nagusiak:

- Enpresa-komunitate sortzaileak, enpresa-garapenean oinarritutako esperientziaren bidez, hazkundera eta berrikuntza sustatu ditzakeelako ideia bultzatzea.
- Sektore sortzailea indartzea, enpresa-munduarekiko lankidetzaren estrategikoaren bidez.

CKO Danimarkan egon arren, bertan zein nazioartean ere jarduten du, kulturaren eta sormenaren sektoreak indartzen. Bere misioa sormen-sektorearen hazkundera eta garapena sustatzea du, sektore horrek hazkunde jasangarrian lagundu, enplegua sortu eta beste sektore batzuk berriro ditzakeelako sinesmenean oinarrituta.

Agentziaren helburua sormen-industriak garatzeko beharrezko baldintzak sortzea da, honako jardueren bidez:

- **CKO** erakundeak **Creative Business Cup**, ekintzaile eta negozio sortzaileentzako nazioarteko lehiaketa, antolatzen du. Lehiaketa hori 2010ean sortu zen Danimarkan eta, 2012an, nazioarteko lehiaketa izatera pasatu zen, sormen-industriaren enpresa-garapena ekimen berritzaileenak aintzatetsita eta sarituta indartzeko helburuarekin.
- **Enpresentzako finantzaketa eskuratzeko laguntza:** **CKO** erakundea **FAME** (*Facilitating Access and Mobilisation of European Finance for Growth of Creative Industries*) proiektuko kide da. Europar ekimen horren helburua hazkunde-potentzial handia duten sormen-industriako enpresei garatzeko behar duten kapitala lortzen



laguntzea da. **CKO** sormen-industrietarako C-I Factor crowdfunding proiektuaren aholkularitza-batzordeko kide ere badar⁴.

- **Eragile publikoei laguntzea eta aholkularitza eskaintzea** sormen-industriak sustatzeko politikak definitzeko orduan. **CKO** erakundeak Danimarkan sormen-industrien eta bestelako jarduera-sektoreen arteko lankidetzak estutzeko estrategia koordinatu du.
- **InViO klusterrean parte hartzea** - Jakintzan oinarritutako esperientziaren ekonomian Berritzeko Sarea: taldearen helburua jakintza erakundeen (zientzia eta hezkuntza) eta negozio-bizitza orokorraren arteko lankidetzak estutzea da. Sareko beste kide batzuk Roskilde-ko Unibertsitatea, Aalborg-eko Unibertsitatea eta Danimarkako Institutu Teknologikoa dira.
- Azkenik, **CKO** erakundeak **azterketa eta txostenak** ere egiten ditu sormen-industriei loturiko arloei buruz, enpresaren, lehiakortasunaren eta berrikuntzaren ikuspegitik.

⁴ Bi proiektuak (FAME eta C-I Factor) European Creative Industries Alliance plataformaren esparruan (kideetako 28 erakundetako eta 12 herrialdeetako politikari arduradun eta profesional biltzen ditu) sortu ziren. Helburu nagusia European sormen-arloko industriak aktiboki sustatzen dituen komunitate bat sortzea da, lehiakortasunaren, enplegu-sorkuntzaren eta garapenaren motor gisa jardun dezan. CKO plataforma horretako kide da.



FRANTZIA

ERAKUNDEA: **Institut pour le Financement du Cinéma et des Industries Culturelles (IFCIC)**

LAGUNTZE-MOTA: **F + A**

KULTURA ETA SORMENAREN ALORREKO SEKTORE ONURADUNAK

- Zinema
- Ikus-entzunezkoa
- Liburua (edizioa, banaketa eta txikizkako salmenta)
- Musika (ekoizpena, aretoak erostea eta hornitzea)
- Arte plastikoak eta argazkigintza (galeriak eta estudioak)
- Antzerkia (ekoizpena, aretoak erostea eta hornitzea)
- Arteari loturiko negozioak (ekoizpena eta salmenta)
- Ondarea (garapena eta zaharberritzea)
- Arkitektura
- Multimedia (ekoizpena eta zerbitzu teknikoak)
- Prentsa

IFCIC Frantziako Kultura eta Komunikazio Ministerioak eta Finantza Ministerioak sortutako finantzaketa espezializatuko instituzioa da, Frantziako industria kulturala garatzeko helburua duena. Interes orokorreko zerbitzu batez arduratzen den sozietate pribatua da. Instituzio horren kapitala Frantziako bankuen, finantza-instituzio publiko handien (Gordailu Kutxa eta Oséo) eta Frantziako Estatuaren jabetzakoa da.

IFCIC erakundeak finantza-bermeak eskaintzen dizkie enpresei, eta kultura industrietarako espezifikoak diren arrisku-analisi zerbitzuak eskaintzen ditu, bereziki, zinemari eta ikus-entzunezkoei loturiko proiektuen epe laburreko mailegetarako **IFCIC**-ek, eskuarki, lortzen diren maileguen %50 bermatzen du.

Eskaintzen diren bermeak bi ildotan gauzatzen dira:

- **Ekoizpenerako eta banaketarako mailegu-bermeak:** **IFCIC** -ek zinemarako eta ikus-entzunezko ekoizle edo/eta banatzaileentzako maileguak bermatzen ditu, Ikus-entzunezko Ekoizpenari Laguntzeko Funtzaren inbertsioak edo finantzaketa



erakar lezaketen lan europarrak ekoizteko eta banatzeko. **IFCIC** -ek Frantzian urtean ekoizten diren film independenteen bi heren ingururi eskaintzen dizkie bermeak.

- **Kultura-industrietako enpresentzako mailegu-bermeak:** berme-ildo hori oso berria da eta uneko egoera ekonomikoari erantzuten dio, une honetan kultura industrietan zailtasun handiagoak baitituzte finantzaketa eskuratzeko orduan.

Europar Batasunean erregistratuta dauden eta kultura industrian lan egiten duten enpresa guztiek eska ditzakete IFCIC-en bermeak.

IFCIC-ek eskaintzen dituen bermeak enpresari dirua mailegatzeko dion bankuari ematen zaizkio, ez enpresari berari. Berme horri esker, bankuarentzat errazagoa da ausardiaz jokatzeko arriskutsutzat jotzen den sektore batean. **IFCIC**-ek maileguen %50 bermatzen duenean, banku-erakundearen arriskua erdira murrizten da, enpresak porrot egiten badu.

IFCIC-en komisioa bermatzen den mailegu baimenduaren urteko %1 da.



HANBURGO - ALEMANIA

ERAKUNDEA: **Hamburg Kreativ Gesellschaft**

LAGUNTZE-MOTA: **A + E**

KULTURA ETA SORMENAREN ALORREKO SEKTORE ONURADUNAK

- Publizitatea
- Arkitektura
- Irrati bidezko zabalkundea
- Diseinua
- Zinema
- Arte ederrak
- Literatura
- Musika
- Prentsa
- Softwarea eta bideo-jokoak
- Antzerkia eta dantza

Hamburg Kreativ Gesellschaft udal-erakundea da, Hanburgoko sormen-industriak sustatzeko sortua. Hiriko sormen-sektoreko enpresa eta profesional guztiei irekitako laguntza-zentro gisa antolatzen da. Bere lan nagusia Hanburgoko sormen-industrien egoera orokorra hobetzea da, eta interfaze gisa jardutea sormen-industrien barruko arlo desberdinen artean, orobat industria horien eta bestelako enpresa-, politika- eta gizarte-eragileen artean.

Kreativ Gesellschaft-en zerbitzuak sormeneko lana eta enpresa-izpiritua kontraesan-tzat hartzen ez dituzten, eta modu onuragarrian bateratu nahi dituzten, Hanburgoko kultura- eta sormen-sektoreko eragile guztiei eskaintzen zaizkie.

Eskaintzen diren zerbitzuen artean hauek nabarmentzen dira:

- **Aholkularitza eta coaching**: sormen-sektoreko profesionalen aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen die, beren ibilbide profesionalak orientatzeko eta enpresa-proiektuak egituratu eta gara ditzaten.
- **Instalazio eta lokalak bilatzea**: sarritan sormen-industrietarako lokal egokiak bilatzeko irizpideak higiezinaren merkatu orokorraren irizpideekin bat etortzen ez direnez, **Kreativ Gesellschaft** erakundeak sormen-industrietarako espazio eta jabetza egokiak bilatzen ditu, eta bitartekari gisa jarduten du horren eta higiezinaren sektorearen artean.



- **Hasierako laguntza profesionala:** **Kreativ Gesellschaft** erakundeak sormen-industrien arloko ikasle eta graduatuei laguntzen die beren bidea aurkitzen lan-munduan, hainbat orientazio-mekanismoren bidez, hala nola kontsulta-saioen edo hitzaldien bidez. Gainera, Hanburgoko unibertsitateekin lankidetzan, **Kreativ Gesellschaft**-ek sektore arteko lankidetzak sustatzeko sare-formatuak diseinatu ditu.
- **Lantegiak eta *networking*:** lantegiak eskaintzen ditu sormen-arloko profesionalen trebetasun pertsonalak eta enpresari lotuak hobetzeko. Halaber, eragile-taldeen bilerak antolatzen dira, horien artean kontaktu onuragarriak sustatzeko.
- **Finantzaketari laguntzea:** **Kreativ Gesellschaft** erakundeak finantza-arloen ikuspegi orokorra izaten eta kasu bakoitzerako finantzaketa-estrategia egokiena bilatzen laguntzen du. Horretarako, «**finantzaketa-bilatzaile**» bat jarri da martxan, iturri eta tresna publiko eta pribatu posibleen datu-base batekin; gainera, Alemaniako eskualde mailako lehen *crowdfunding* plataforma sortu du, **Nordstarter**.



EUROPA IPARRALDEKO HERRIALDEAK

ERAKUNDEA: **KreaNord**

LAGUNTZE-MOTA: **F + E**

KULTURA ETA SORMENAREN ALORREKO SEKTORE ONURADUNAK

- Moda
- Musika
- Argitalpenak
- Diseinua
- Arkitektura
- Animazioa
- Zinema
- Bideo-jokoak

KreaNord eskualdeko kultura- eta sormen-industrien hazkunde-aukerak hobetzeko diseinatutako Europa iparraldeko ekimena da. Iparraldeko Ministro Kontseiluak koordinatutako organismoa da⁵, eta Europa iparraldeko herrialdeen artean estrategia bateratuak trukatzeko eta garatzeko plataforma gisa jarduten du. **KreaNord** kultura- eta sormen-industriek iparraldeko herrialdeen etorkizunerako ezinbestekoak diren enplegua, hazkundera eta esportazioak sortzen dituztelako sinestuta sortu zen.

Hala, **KreaNord**-en lanak helburu hauei erantzuten die:

- Europa Iparraldeko kultura- eta sormen-industrien hazkunde eta garapena sustatzea.
- Sormen-enpresen izaera ekintzailea eta bideragarritasuna bultzatzea.
- Nazioartekotzeko eta finantzaketarako aukerak sortzea.
- Industrien, enpresen eta bestelako alderdi interesdunen arteko lankidetzari bide ematea.

KreaNord-ek **business angels direlakoez osatutako inbertsio-sarea du (KreaNord Investors)** Sare horretan, sormenaren alorreko enpresek eta profesionalek finantzaketa bila dezakete eta, interesa duten inbestitzaileek, inbertitu egin dezakete. Gainera, kulturaren arloko negozioak ez badaude behar bezain garatuta, sareak arrisku-kapitala lortzeko aurretiazko faseak ditu, *crowdfunding*aren eta *crowd equity*aren bidez.

⁵ Iparraldeko Ministro Kontseilua Europa iparraldeko bost herrialdeko parlamentuen arteko lankidetzara sustatzen duen erakunde bat da: Islandia, Danimarka, Suedia, Finlandia eta Norvegia, horien eskualde autonomoekin: Faroe Uharteak, Groenlandia eta Åland.



Finantzaketa-egituraz gainera, **KreaNord**-ek proiektu hauetan hartzen du parte:

- **Northern Dimension Partnership on Culture (NDPC)**: NDPC 2010ean sortu zen, Europar Batasuneko Iparralde Dimentsioko⁶ politiken esparruan. NDPCR-ren xedea kultura eta sormenaren industriak sustatzea da, eskualdeko eta nazioarteko garapena bultzatzen duen indarra izaki Iparralde Dimentsioak hartzen duen eskualde osoan.
- **Nomex**: Europa Iparraldeko Herrialdeetan sortutako musika ezagutarazteko plataforma bat da. Europa Iparraldeko bost herrialdeetako (Islandia, Finlandia, Suedia, Danimarka eta Norvegia) musika-esportaziorako bulegoak urtean behin bildu dira esperientziak partekatzeko, jardunbide onenak eztabaidatzeko eta elkarrekin lan egiteak ekar litzakeen onurak aztertzeko. 2010ean, NOMEX bost esportazio-bulegoetarako plataforma komun gisa eratu zen. Gaur egun proiektu erregularretan egiten du lan, hala nola **JaJaJa Showcase** proiektuan, orobat exekuzio-prozesuan dauden bestelako prestakuntza-programetan eta bestelako erakustokietan.
- **Nordisk film og tv fond**: 1990an sortu zen Funts honen helburu nagusia kalitate handiko zinema- eta telebista-ekoizpenak sustatzea da Europa Iparraldeko bost herrialdeetan, film luzeen, telebista-fikzioaren eta sorkuntza-dokumentalen finantzaketan lagunduz. Halaber, sortzaile eta ekoizleei ere laguntzen die nazioartean beren produktuak ezagutarazten, banaketa eta bikoizketa finantzatzuz; orobat, etengabeko prestakuntza eskaintzen die ikus-entzunezko sektoreko profesionaleri.
- **Nordic Game**: Programa honen helburua haur eta gazteek Europa Iparraldean sortutako kalitatezko ordenagailu-jokoak eskuragarri izan ditzaten bermatzea da. Programa hau errealitate bati erantzuteko sortu zen: Europa Iparraldeko jokogaratzailleek itzal handia dute eta, horien industria, esportazioetan oinarritzen dena, mundu-mailan hamar onenen artean dago, tamainari eta salmentei dagokienez. Oso arrakastatsuak izan arren, Europa Iparraldeko jokoak oraindik eskualde horretan saltzen diren tituluen %1 ere ez dira, eta tituluen %5ak baino gutxiagok dute Europa Iparraldeari loturiko alderdiren bat, hala nola hizkuntza, ekoizpena, kontrola edo jatorrizko jabetza intelektuala.

⁶ Iparraldeko Dimentsioa Europar Batasunaren ekimena da, Europa Iparraldeko Herrialdeak, Baltikoko herrialdeak eta Errusia estaltzen dituzten mugez gaindiko politikak gauzatzen dituena.



Etorkizunean Europa Iparraldean sortutako kalitatezko ordenagailu-jokoak eskuragarri izan daitezen bermatzen laguntzeko, programak zenbait jarduera gauzatzen ditu:

- Sektoreko eragileen artean networking jarduerak eta informazioa.
- *Nordic Game*-k defendatzen dituen irizpide politiko, kultural eta komertzialak betetzen dituzten proiektuak garatzen laguntzea.
- Zuzeneko banaketa: garatzailearen eta merkatuaren arteko tartea murriztu nahi da, Europa Iparraldeko jokoetarako online banaketa-plataforma bat abian jarritz



HOLANDA

ERAKUNDEA: **Creative Industries Fund NL**

LAGUNTZE-MOTA: **F + E**

KULTURA ETA SORMENAREN ALORREKO SEKTORE ONURADUNAK: Diseinua eta E-kultura.

Holandako Gobernuak bere kultura politikaren baitan 2013an sortu zuen finantzaketa-egitura da, nagusiki, diru-laguntzen bidez funtzionatzen duena. Funtsa diseinuaren eta E-kulturaren diziplina guztiak zentzu zabalean finantzatzera eta laguntzera bideratuta dago.

Gaur egun **Creative Industries Fund** funtsak honako diru-laguntza programa hauek ditu:

- **Arkitekturarako programa:** arkitekturaren kalitatea sustatzen duten eta horren balore sozial eta ekonomikoa kulturaren ikuspegitik areagotzen duten proiektuei eskaintzen die laguntza. Gainera, eragile pribatuen eta publikoen artean sektore arteko ikuspegia eta lankidetzak sustatzeko helburua duten proiektuak bultzatzen ditu.
Urteko aurrekontua: 1,2 milioi euro.
- **Diseinurako programa:** diseinu-proiektuei laguntzen die, diseinuaren barruan moda, bitxigintza, industria-diseinua, produktu- eta altzari-diseinua, diseinu grafikoa, diseinu autonomoa, irudigintza, komikiak, animazioa eta antzerki-diseinua hartuta.
Urteko aurrekontua: 1,1 milioi euro.
- **E-kulturarako programa:** diru-laguntza programa horren helburua E-kulturaren sakontzea eta berritzea da, baita E-kultura publikoarentzako ikusgarriagoa eta interesgarriagoa egitea ere. E-Kulturaren barruan osagai berritzaile sendoa duten arte aplikatuen, zientziaren eta teknologiaren interfazeko ekoizpen kulturalak sartzen dira.
Urteko aurrekontua: 1,1 milioi euro.
- **Nazioartekotzeko programa:** kalitate bikaina izateagatik Holandako sormen-industriaren nazioarteko ospea indartzen duten proiektuei laguntzen die, batez ere arkitekturaren, diseinuaren eta kultura elektronikoaren arloetan, moda eta bideojokoak barne.
Urteko aurrekontua: 800.000 euro.
- **Jarduerak programatzeko programa:** arkitekturaren, diseinuaren eta E-kulturaren arloan, edo horien konbinazio batean, jarduerak programatzeko diru-laguntzak.
Urteko aurrekontua: 1,59 milioi euro.



- **Talentua garatzeko programa:** programaren helburua arkitekturaren, diseinua-
ren eta E-kulturaren arloko berebiziko talentua dutenen ekintzailletza indartzea
da, eta sektore osorako adibide inspiratzaile gisa sustatzea. Urtero, programak 30
talentuduni laguntzen die.

Urteko aurrekontua: 750.000 euro.

- **Tax Video Clip Fund:** programa horrek bideoklipak egiten laguntzen du. Bideo-
errealizadoreek eskaerak aurkezten dituzte, artista (pop edo bestelakoa), talde, DJ
edo ekoizle batekin batera. Lankidetzak horrek balio erantsi berritzaile edo artistiko-
kulturala sortu beharra du.

Urteko aurrekontua: 300.000 euro.

- **Jokoentzako diru-laguntzak:** joko artistikoak garatzera zuzendutako diru-la-
guntzak. Artistek, diseinatzaileek edo animatzaileek eskaera bat aurkez dezakete
joko-garatzailer batekin edo instituzio kultural batekin batera, joko bat garatzeko edo
ekoizteko.

Urteko aurrekontua: 300.000 euro.

- **Transmedia programa:** fikziozkoak ez diren eta garrantzi soziala duten ekoizpenei
laguntzeko programa. Ekoizpen horietan eduki osagarriek eta konexio sortzaileek
egon behar dute, hedabide-mota desberdinen bidez (webguneak, irratia, telebista,
sare sozialak, aplikazioak, liburuak, online jokoak).

Creative Industries Fund, funtsak, sektore horiei diruz laguntzeaz gainera, kulturaren,
gizartearen eta ekonomiaren artean konexioak ezartzeko eta finkatzeko lan egiten du.
Helburu horrekin, Funtsak jarduerak eta lehiaketak antolatzen ditu, eta gogoeta eta
eztabaida sustatzen du eragile publikoen artean.



KATALUNIA

ERAKUNDEA: **Institut Català de les Empreses Culturals (ICEC)**

LAGUNTZE-MOTA: **F + A + E**

KULTURA ETA SORMENAREN ALORREKO SEKTORE ONURADUNAK

- Arte eszenikoak
- Ikusizko arteak
- Ikus-entzunezkoa
- Liburua
- Musika
- Digitala

ICEC Kataluniako Generalitateko Kultura Sailaren organismo bat da, 2000. urtean sortua, sormen artistikoa eta eduki kulturalen ekoizpen, banaketa eta zabalkundea sustatzeko asmoarekin. Horretarako, enpresa kulturalak garatzen ditu, eta kultura kontsumoa nahiz kultura katalanerako merkatuak sustatzen ditu.

Hauek dira **ICEC**-en jarduera-ildoak:

- **Diru-laguntzak:** enpresa kulturaleri ekoizpenerako, sustapenerako, banaketarako, hedapenerako eta ekipamenduak birgaitzeko nahiz hobetzeko diru-laguntzak ematea. Kultura sektoreentzako diru-laguntza espezifikoak honako sektore hauei zuzentzen zaizkie:
 - arte eszenikoak
 - ikusizko arteak
 - ikus-entzunezkoa
 - liburua
 - musika
 - digitala

Gainera, **ICEC** -ek sektore anitzeko diru-laguntzak ere baditu:

- Maileguak eskuratzeak ekartzen dituen finantza-gastuetarako diru-laguntzak, aktibo finko eta zirkulatzaileerako **ICF** (*Institut Català de Finances*) eta **ICEC** erakundeen arteko hitzarmenean ezartzen diren baldintzetan.
- Kultura proiektuetarako laguntzak, ekarpen berreskuragarrien eta diru-laguntzen modalitateetan.
- Enpresa eta kultura erakundeentzako diru-laguntzak, azoketan, jaialdietan eta nazioarteko merkatuetan parte har dezaten.
- Kultura enpresa edo erakundeek aholkularitza eskura dezaten diru-laguntzak.



- **Ekarpen berreskuragarriak:** ekarpen berreskuragarriak “kofinantzaketa” erako laguntza ekonomikoak dira, enpresari kultura proiektu baterako finantzaketa izatea ahalbidetzen diotenak. Kultura proiektuaren ustiapen-aldia hasten denean, ekarpena itzultzen hasten da, interesik gabe. Halako ekarpenak eskuratzeko, **ICEC**-ek proiektuaren interes kulturala eta bideragarritasun ekonomikoa baloratzen ditu. Hainbat motatakoak daude:
 - Kultura proiektuetarako ekarpen berreskuragarriak eta diru-laguntzak.
 - Katalunian ikuskizunak banatzeko eta ustiatzeko ekarpen berreskuragarriak eta diru-laguntzak.
 - Proiektu eta plan editorialetarako laguntzak.
 - Film luzeak banatzeko planetarako laguntzak.
 - Diskografiako eta musika-ekoizpenaren arloko proiektuetarako laguntzak.
 - Arte eszeniko eta musikaren arloko enpresa pribatuen eta udalen arteko lankidetzabultzatzeko laguntzak, Katalunian udal-programazioak sustatzeko.
- **Kultura enpresa eta erakundeentzako inbertsio eta zirkulatzailerako maileguak, ICFrekin eta Triodos Bank-ekin lankidetzan:** 20 milioi euroko mailegu-ildoak da, aktibo finko edo/eta zirkulatzailean inbertitzeko proiektuak finantzatzeko, bereziki Kataluniako kultura-ehunera zuzenduta. Inbertsiorako maileguak 30.000 euro eta milioi bat euro bitartekoak dira, gehienez ere 7 urteko epean itzultzekoak, 2 urteko ezaldiarekin; eta zirkulatzailerako maileguak, berriz, 30.000 euro eta 600.000 euro bitartekoak dira, gehienez ere 4 urteko epean itzultzekoak, urtebeteko ezaldiarekin **ICEC**-ek baliabideak eskaintzen ditu eta mailegu-lerroa kudeatzen du, eta Sailak, berriz, eragiketen kreditu-arriskuaren zati bat bere gain hartzen du. Triodos Bank-i dagokionez, sinatutako hitzarmenaren helburua Kultura Sailak bere onuradunei emandako diru-laguntzen zenbatekoa aurreratzea da, urtebeteko maileguen bidez.
- **Nazioartekotzeko laguntza:** jarduera-ildo horrek Kataluniako eta atzerriko enpresen artean loturak ezagutarazten, banatzen, sustatzen eta ezartzen laguntzen du, ekintza zehatzen bidez:
 - Informazioa, aholkularitza, laguntza eta nazioarteko kontaktu profesionalak eskainiz.
 - Kataluniako sormen enpresetan interesa duten nazioarteko profesionalen aholkularitza eskainiz.
 - Kataluniako sormen enpresak nazioarteko azoka eta merkatuetan egon daitezen koordinatuz.



- Kataluniako sormen enpresen nazioarteko ikusgarritasuna areagotzeko sustapen- eta komunikazio-materialak editatuz.
 - Enpresei laguntzeko politikak garatuz, kultura erakunde eta elkarteekin koordinatuta.
-
- **Enpresa-garapenerako zerbitzua:** horren helburua da kultura enpresen kudeaketan lehiakortasuna eta berrikuntza hobetzea, prestakuntza-jardueren bidez (hitzaldiak, lan-saioak, tailerrak, eta abar). Jarduera horiek doakoak dira eta zenbait gai jorratzen dituzte, hala nola berrikuntzaren kudeaketa, teknologia berrien aplikazioa, kudeaketa ekonomikoa, digitalizazioa edo enpresa-komunikazioa.



3.2. Aztertutako kasuei buruzko gogoetak

Aztertutako kasuek enpresa-laguntzako modalitate desberdinak aurkezten dituzte. Horietatik abiatuta, zenbait gogoeta egin daitezke EAeko kultura-sektoreei laguntzeko ekintzak antolatzeari buruz.

- Enpresei laguntzeko politiken eta tresnen lurralde-helmena aldakorra da: Estatuez gaindikoa, Estatukoa, eskualdekoa eta udalerrri-mailakoa.
- Ez dago irizpide bakar bat tresna mota honen hartzaile diren sektore eta azpisektoreei dagokienez. Dena den, digitala, diseinua, arkitektura edo sormeneko antzeko beste sektoreak barne hartzen dira aztertutako ia kasu guztietan. Ez da aurkitu sektore kultural tradizionaletan bestetan zentratzen ez den enpresa-laguntzako erakunderik.
- Nahiz eta diru-laguntzek oso finantzaketa-tresna erabilia izaten jarraitzen duten, bermeak eta kapitala finantzatzeko mekanismoak (arrisku-kapitala eta business angels direlakoak) gero eta ohikoagoak dira.
- Laguntze-esparruak (A, E, F) orekatuta daude eta beti ageri dira konbinatuta, aztertutako ditugun kasuetan. Horietako batek berak ere ez du erabiltzen laguntze-mota bakar bat.
- Lankidetzak publiko-pribatua maiz agertzen den laguntza-ildo bat da, bai banku-erakundeekin, finantza-erakundeekin edo enpresa-sektoreekin.
- Aztertu ditugun laguntza-erakunde askoren helburuak sormen-arloko enpresa eta profesionalen eta bestelako sektore batzuetako enpresarien artean erlazio eta lankidetzak ezartzeari lotuta daude.



4.1. Gomendioak

Nahiz eta EAEn enpresei laguntzera zuzentzen diren erakunde eta instituzio publikoak badauden, kultura eta sormenaren sektorerantz zuzendutako zenbait programa espezifikorekin, ez dago egitura espezializaturik. Ildo horretan, egindako kasu-analisiin oinarrituta, zenbait gomendio egin daitezke, EAEn kultura eta sormenaren arloan laguntza-politikak garatzeko aukera kontuan hartua izan dadin.

LAGUNTZA-EGITURAK

Nahiz eta laguntza-programa espezifikoak gauza daitezkeen, eraginkorragoa da erakunde zehatz batzuk beren helburuak kulturaren eta sormenaren arloko enpresak sustatzen eta garatzen zentratzea. Batez ere, horrek oso dinamika eta ezaugarri espezifikoak dituzten sektore batzuetan (kulturaren sektorea) espezializatzea ahalbidetzen baitu. Zentzu horretan, gomendio hauek egin behar dira:

- EAeko kultura-arloko enpresentzako laguntza zentralizatzen duen **programa espezifiko** bat sortzeko aukeraren gainean gogoeta egitea; programa hori Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendekoa izango litzateke, eta horrexek zuzenduko luke. Programa honen helburuen artean kultura-enpresak finantzatzea, horiei aholkularitza eskaintzea eta kultura arloko enpresen inguruneak sortzea izan beharko lukete. Programa hau Jaurlaritzaren beste sail batzuekin lankidetzan kudeatzeko aukera ere aztertu liteke.
- Laguntza-egiturak **sormen-sektoreei laguntzeko politikak zabaldu** beharko lituzke, kulturaren tradizio direnak gaindituz, Europako herrialde gehienetan agerikoak diren joerekin lerrotzeko moduan. Programetan jaso beharreko sormen-sektoreak EAeko errealitatearen eta aukeren arabera aukeratu behar dira.



FINANTZAKETA

Adierazi dugun bezala, finantzaketa lortzea da kultura eta sormenaren arloko enpresen arazo nagusietako bat. Horren harira, laguntzaren barruan proiektuak ekonomikoki bideragarriak izatea ahalbidetzeko neurriak sartu behar dira, finantzaketa- eta laguntza-tresna berritzaileak aplikatuz. Hala, honako hauek gomendatzen dira:

- Finantzaketa publiko-pribatuko tresnen alde egitea, hala nola **bermeen** alde, finantzaketaren arriskua Administrazioaren eta kultura eta sormenaren arloko enpresei dirua uzten dieten banku- eta finantza-erakundeen artean bana dadin.
- **Arrisku-kapitaleko finantzaketako** mekanismoak erabiltzeko aukerak aztertzea, kultura- eta sormen-sektoreetan espezializatutako arrisku-kapitaleko erakundeak sortuz edota beste sektore batzuekin jarduten duten eta lehendik dauden erakundeek parte hartuz.
- **Administrazioaren eta banku-erakundeen artean hitzarmenak** egitea, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bere onuradunei esleitzen dizkien diru-laguntzen zenbatekoaren besteko maileguak emateko.
- Administrazioak **pedagogia-lana egin behar du banku- eta finantza-erakundeekin**, kultura eta sormenaren arloko enpresek errentagarritasun baxua duten eta arriskutsuak diren pertzepzioa murriztuko bada.



AHOLKULARITZA ETA INGURUNEAK SORTZEA

Laguntzarekin batera, Herri Administrazioaren eta kultura- eta sormen-arloko profesional eta enpresen arteko lankidetzak beharrezkoa da. Jakintza eta sinergiak sortzea, eta kultura proiektuak garatzeko beharrezko baliabideak eskuratzea, ahalbidetzen duten jardura-ildoak definitu behar dira. Ildo horretan, ondorengo gomendatzen da:

- Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren, Foru Aldundien eta udalen arteko lankidetzan oinarrituta, tailerrak?? **lantegiak eta prestakuntza-guneak** sortzea, sormen eta kultura arloko profesionalen eta sektoreen enpresa-abileziak hobetzeko.
- Sormen- eta kultura-sektoreen nahiz **kulturaz bestelako gainerako enpresa-sektoreen** arteko **lankidetzak** sustatzea, alde bientzako onuragarriak diren lankidetzak posibleak identifikatzeko aukera ematen duten guneak sortuz.
- **Nazioarteko sareak** sortzea erraztu. Horren harira, nabarmentzekoa da **Europa Sortzailea 2014-2020**, programa, Kultura azpiprograman, Europa mailako lankidetzak-proiektuei laguntzeko eta sare europarrak sortzeko lerro espezifikoak baititu.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA